

# Benigno Albeniz, uztargilea



*Benigno Albeniz Maiz Iruntxi Berri baserrian jaio zen, 1935ean, Aiako San Pedro auzoan. 19 urte zituela hernaniar bihurtu zen Loidiko Jone Otegiarekin ezkondu zelarik; 5 seme-alaba izan zituzten. Berak egindako uztarriei esker Euskal Herriko ehunka idi pareri lan astuna errazagoa bihurtzen ahalegindu da. Uztargileen artean maisutzat hartu beharko genuke. Iraultzaile bihurtu zaigu uztargileen munduan; bere jatorrizko marrazki apaindurari esker, bereziak bilakatzen ditu berak sortutako uztarriak, bakarrak, Benigno Albeniz markakoak. Urte asko daramatzat ofizio honetan, baina nire begiekin ikusteko aukera izan dudanez, oraindik egur lanarekin inork ez bezala gozatzekeo gai dela esango dizuet. Santa Barbara auzoan duen tailerrean, bere lanen begiradapean, berari buruz hitz egiteko aukera ederra eman digu.*

## Nondik datorkizu egurrekin lan egiteko afizioa?

Dakidanez, familiako inork ez zuen egurrik landu. Txikitan ikasketa gutxi eta lan asko egin izan behar genuen, astirik ez nuen egurrik lantzeko, nahiz eta betidanik atsegina suertatu. Aiako San Pedro auzoko ermitako San Pedro egurrezko irudi polita daukat buruan, ziurrenik hura izango zen ikusi dudana lehen-dabiziko egur tailua.

## Hernanira etorritakoan hasi zinen uztarriak lantzen.

Bai, hala da, Pablo Lasa zenarekin ikasi nuen ofizioa, orain dela 50 urte inguru. Garai haietan 50.000 pezeta ordaindu nizkion berak zekiena niri erakusteko. Diru asko zen garai hartako. Atsegin ez zitzaidan beste lan batean nenbilen orduan, eta uztargile izateko aukera ona izan zitekeela pentsatu nuen.

## Lan finkoa utzi eta uztargile gisa saiatu.

Ez nekien burua altxatuko ote nuen uztargileen ofizioan. Uztarriak egiten ikasten ibili direnak mordo bat izan dira, baina jarraitu edo bizimodua aurrera atera dutenak, gutxi. Garai haietan uztargile asko



ginen, konpetentzia handia zegoen. Hala ere, Pablok eta nik egunean bana egiten genuen, batzuetan iritsi ezinik ibiltzen ginen. Gehienbat Hernani ingururako egiten genuen lan. Baserrira joan, idiei burua eta adarrak ahal zen ondoen neurtu, eta tailerrea bueltatzen ginen lanera.

## Ze egur mota erabiltzen da uztarriak egiteko?

Pagoa, hilberrian moztutakoa bada, hobe. Zerratiketakoei erosten diegu gehienetan, beraiek ongi baitakite zer egur nahi dugun. Uretan kontserba-

tzen da hobekien, lan egiteko garaia iritsi arte. Uztarría egiteko garaia iristen denean, enborra lau zatitan banatzen da, laurdendu. Erditik pitzatu, ez moztu, bihotzetik partitu behar da, egurrak bizioa duen begiratu. Bizioa edukiz gero, kendu egin behar zaio, bestela, uztarría, denborarekin, hautsi egiten baita. Pagoa, uretan utzita, betiko omen da, oso ondo kontserbatzen da, Pasaiako eta Donostiako portuak pagoaren gainean eraiki dira, eta hor diraute sekulako. Behin lana amaituta, linazi olio eta Politus erabiltzen ditut, egurra behar den bezala sendatzeko; horrelako tratamenduarekin, egurrak betiko iraun dezake.

#### **Garai batean uztarríak egiteari utzi egin zeniola entzun dut.**

Une zailak etorri ziren uztargileentzat, traktorea azaltzen hasi zenean; ofizioa desagertzeaz ote zegoen galdetu nion neure buruari. Naiz eta gustura egon, beste lan batean hasi nintzen; kostata, ofizioa aldatu nuen.

#### **Eraikuntzan denboraldi bat igaro eta gero, Hondarribian taberna ireki zenuten.**

Han hasi nintzen berriro uztarríak lantzen. Pablo Lasa bihotzokoak jota hil zen, eta hark behin esandakoaz gogoratu nintzen: zazpiko uztarría egin behar zuela. Nik egin behar nuela erabaki nuen. Hura izan zen berriro hasteko arrazoia. Baztanen egur mordo bat erosi, uretan sartu, eta zazpiko uztarríarekin hasi nintzen. Oso ondo moldatu nintzen hainbeste urte eta gero. Baina gehien harritu zirenak tabernako bezeroak izan ziren. Zazpi euskal probintzien armariak dituen uztarri hura Hernaniko Tripontzi tabernan dago gaur egun ikusgai, lehen Iruntxi izandakoan, Hernanira itzulitakoan ireki genuen tabernan.

#### **Harrezkero buru-belarri hasi zinen berriro egurrean.**

Enkarguak gero eta gehiago ziren, egur kutzak,



armariak, zizelkatze lanak, eta uztarríak ere bai. Azoketara ere joaten nintzen, Euskal Herri guztian zehar ibili nintzen. Uztarriez aparte, beste egur lan batzuk ere geroz eta gehiago gustatzen zitzaizkidan, nahiz eta uztargile bezala izan ezaguna. Pablarekin nengoenean, nik egiten nizkien apaindurak, marrazkiak, uztarriei. Azoketan asko ibilia naiz, baina orain ez zait komenigarria iruditzen; artisau azokak asko aldatu dira, lehen maila hobea zegoen, eta ematen ziguten dirua ere, oraingoarekin konparatuta, gehiago zen.

#### **Beraz, uztarriez aparte beste egur lan batzuk ere egiten dituzu.**

Oso gustura gainera. Orain bertan askozaz gusturago sentitzen naiz beste egur lan batzuk egiten, uztarríak egiten baino. Uztarri enkarguak orain gogorragiak dira niretzat; ez zaizkit komenigarriak iruditzen, baina enkarguak konplitzen ditut. Base-ritarrek uztarría ona eta polita izan dadila eskatzen didate; garestiagoa suertatu arren, marrazki eder-rrak izan ditzala. Gainerako uztargileetatik bereizten nauena nik egindako apaindura bereziak dira, nire markakoak. Erraz moldatzen naiz lan guztietara.

#### **Artisau, artista... Nola definituko zenuke zeure burua?**

Sordun, sortzaile, artisau... berdin zait. Niri gustatzen zaidana egiten dut. Nire berezko estiloa dut, basatia, basokoa bainaiz. Gauza asko egin ditut, baina, denbora izanez gero, askozaz gehiago egitea gustatuko litzaidake. Nahiz eta argi eduki lana hasi baino lehen zer egin, lanaren arabera, aldatzeko aukera ere ez dut baztertzeko. Inork ez ditu nik egiten ditudan moduko lanak egiten; urteen poderioz neure estilo propioa aurkitu dut. Tailarrera etortzen zaizkidan bezeroek batzuetan erreta egiten didate uztarri ximpleak, marrazki gabekoak nahi, eta ez dituztelako tailerrean aurkitzen.

#### **Zer motatako apaingarri edo marrazkiak lantzen dituzu?**

Naturarekin zerikusia dutenekin aritzen naiz gehienbat. Zuhaitzak, bereziki, asko atsegin ditut. Ezin dizut esan zehazki zer motatako zuhaitzak diren; berdin zait, zuhaitzak dira. Uztarrietan asko ipintzen ditut, baina eskultura modura ere asko egin ditut: banaka, binaka, okertuak, zuzenak oso gustukoak ditut. Animaliak ere asko erabiltzen ditut: txoriak, ahariak, astoak etab. Astoa asko maite dudana aberea da; hazienda inteligentea da oso, zintzoa non eta hala tratatzen baduzu. Marrazki geometrikoak neure erara moldatzen ditut. Giza irudirik ez dut landu, baina bai eskuak. Uztarrietik kanpo, esku eskulturak egin ditut. Egiten ditudan lan guztiei, txarra edo ona izan, atzealdean nire marka jartzen diet: Albeniz, eta etxeko telefonoa.

#### **Ofizioan hainbeste urte igarota, enkargu bitxiren bat jaso al duzu?**

Denetatik izan dut hainbeste urtean, baina orain dela gutxiago izan da bitxienean, Zaragozako bikote bateana, alegia. Ez dakit nola, Internet bidez aurkitu zuten



nire telefonoa; nirekin harremanetan jarri, eta hiruko uztarri sendo bat enkargatu zidaten. Uztarri museo bat omen dute, Zaragozan. Museo horretan, Espainiako beste lurraldeetan egiten diren uztarriak jasotzen dituzte. Sekulako afizioa diete uztarriei, idi probak ere izugarri gustatzen omen zaizkie.

**Nola ikusten duzu uztargileen ofizioaren etorkizuna?**

Lanbidea ez dut arriskuan ikusten: gutxitzen goaz, baina oraindik bagaude; idi probak egiten diren bitartean, ez dut arriskurik sumatzen. Ez dut erakusteko balio; hala ere, lñigo, semea, nahiko ondo moldatzen da, nahiz eta beste lanbide bat eduki. Ofizioa menderatzen duzunean, disfrutatzen da; berak menderatzen bazaitu, berriz, ez da batere atsegina, ofizio arraroa da, lan zaila da.

